


ZER
ALDIZKARIA

402n. zenbakia
2014 MARTXOA


**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**Ez dut
errezatuko
erdaraz**

BITORIANO GANDIAGA



**LOURDES eta PAULO´ren
Urrezko ezteguak 1963–2013, III.**



IZADIA ZAINDU XIII.

BATZAR NAGUSIA 2014/03/27

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

Ez dut errezatuko erdaraz

Arantzazun dago nire lana eta bizilekua. Arantzazu santutegi eta bakarlekua duzu. Andre Mariaren irudi zaar baten inguruan sortu ta azi da Arantzazu. Bada bosteun urtez gora, Euskal Erriarentzat fraide komentu andi ta arrunt baino zerbait geiago dela. Andre Mariaren irudi zaarrek erakarmen aundia izan du alde batetik; bestetik, berriz, fraideak izan dira erromesarekin itz egin dutenak. Arantzazu ardatz eragile bat izan da Euskal Errian. Euskal Erriaren barruz barru aritu den ardatza. Arantzazuri buruzko erromantze bilduma bera bakarrik ere naikoa da diodana egiztatzeko.

Jende euskaldunak eragin dio Arantzazuri, jende euskalduna izan baita geienik Arantzazura urbildu dena. Jende euskaldun orri bere izkuntzan erantzun bear izan dio Arantzazuko fraideak. Entzun eta erantzun. Euskaldun jende orren berri sakona izan du Arantzazuko fraideak. Jende orren izaera ezagutu du, jende orren nai, bizimodu, aiurri, ezin eta pobretasun sakon ezagutu du, eta jende orrentzat bizitza bearturik aurkitu da istoriako trantze bakoitzean zear. Jende orren izkuntza ain apalarekiko izan duen arreta bera, ez da izan makala. Tradizio orretan, gure belaunaldiak ezagutu duen katemaila, Salvatore Mitxelena izan genuen. Poeta, istoriagile, saiolari. Tradizio onek ba du egun ere exponente ederrik gure Aita Villasanterengan. Nor bakoizaren sensibilitate, gustu ta joeraz kanpo, eta euskara landuz etxe onetan etorri dan gizaldiz gizaldiko zaletasun abiaduraz gaineretik, Arantzazura urbildu dan jendea izan da, emengo euskaltzaletasunari etengabe eragin diona. Niri beintzat jende ori zait benetan eragile izan.



Eliza-osteratxoa egin ondoren eta ingurua begiratu, edozein bastertxo aukeratu du jende orrek bere bazkari-legetxoa egiteko, eta an daude, izketan baino isilik, jaki-pardeltxoaren inguruan, isilik eta jaten, noizbeinka zerbait diotela, euskaraz isilik itz egin bear bailitzan. Kolpean ezgutzen dut usadio zaarreko euskaldun taldea. Erdaldun jendea, edota erdaraz ari dena, altu-altuka mintzatzen da, solteago mugitzen da, abarrots andiagoz da nabarmentzen. Ez du beldurrik, seguru sentitzen da, inguruaren jabe da. Beldurra olako kikildurak lotzen du euskalduna, oso seguru sentituko ez balitz bezala ageri da, paraje arrotzean aurkituko balitz bezala. Gizaldietako menpetasuna, agian mendeetakoa, nabari zaio, setiatutako eiza ikaratu adina ez bada ere, abere bildu ta uzkurra dirudi gizajoak. Euskaldun utsa izateak alako bajutasun lotsagarria balu bezala. Jende orren umiltasunak irabazi nau ni, jende au zait nagusitu sentipenaren sustraitaraino.



Euren Koruan
Jauna goratu zezan nai zuten
erdaraz ari zirenek.
Euren korura deitu zuten
euren pozaren doinuan
Jauna goratzera.

Urrutira begiratu zuen
Euzkarazko begiratu.
Ez zien jarraitu.
Lurrak erakarrita
Korupera jatsi zen
Jauna beeratzera.

Ez dut errezatuko erdaraz
Ez dut zabalduko
erdarazko Salmutegirik.
Salterioa artzazu, esan zidaten,
eta errezatu gurekin
Euskaldun aniak ziren
neure lurrian eta etxean,
erdaraz errezatzera
deitu nindutenak.
Erdarak ez du errurik
ezpata ona dalako,
gure kontra iltzale
biurtu dutelako
ies egiten diot nik.
Nik neure lurrian
eta neure etxean,
nire izkuntzan
goratu nai ditut
Jaungoikoa ta mundua.
Inoiz ez ditu aintzat
komunitateak artu
euskaldunon sentipenak
Beti eskatu digu
etsi dezagula erdaldunen alde
eta beti etsi dugu.

Ikastetxean
Karitaten izenean
Erdaraz egin bear da.

Kalean
edukazio falta da
euskeraz egitea.

Euskal Erriko ikastetxe batean
apaiz-karrera bukatuta
euskaraz ezin zuela-ta
edaraz egin zuen sermoia
euskaldun utsen artean
bere gurasoek ez zioten ulertu.
Ezta bere erritarrek.

Baina Ikastetxean
Karitatearen izenean
Erdaraz egin bear zan.

Karitatea
esate baterako
zera da:
erdaraz egitea
euskaldunen artean.

Beste ejiplu bat:
erdaldunen artean
erdaraz egitea
karitatea da.

Gurpide Begoñan

Denontzako da
Jainkoaren itza,
esan zuen gotzain jaunak,
eta, erdaraz mintza zitzaigun,
baina erdaraz bakarrik,
zeren
an ginen euskaldunak
ez ginen ain den denak,
naiz eta geienak.

Auxe esan dit amak.
Baina gotzainak badaki
naiz eta euskaldunak
noizbait geienak izan,
beti garela ondakinak.





Domine, labia mea aperies.

Eta orduan Erriko seme batek
otoitz au egin zuen:
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna,
ez baitut nai erdaraz
zure izenik gorai pa.

Naitaez sartu ziguten izkuntzan
bear bazaitut goratu,
itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Ez baitzaitut nai nere izkuntza
kabitik bota zuen kanpoko
egaztiaren kantuz aipatu,
itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Gure mintzaera biluzi au
destainuz arbuiatzen dutenekin
ez dut nai aorik zabaldu.
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Nola bear dizut aita-izenik eman,
nola salbatzaile deitu
morrontzan gauzkatenen izkuntzan?
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Aaltsuen izkuntza ospetsuan
ez naitzaizu izketan asiko
osperik ez duen Erri-ondakin
baztertu onen izenean
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Aundikiengana itzuli ziren
arro eta ergelen izkuntzan
ez dut nai salmorik abestu.
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Erriko ondakin onen izkuntza zapal
apaldu onetan, zapalduekin batean
goratu ezin baldin bazaitut,
itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Erri euskaldunaren izenean, euskaraz.
Euskaraz, Jauna, Erri euskaldunaren izenean.

Ala gureak izan bear ote du bakarrik
bere izkuntzan goretsi bear ez zaituen Erria?

Baina gure Erriko katedral-koruetan
ez du tokirik gure mintzairak,
ez eta gure komentuetaiko salmu-saioetan.

Baina elizgizon talde bat ere ez du Erri euskaldunak
ez eta ere elizemakume talde bat
bere ordeztu eta izenean goratu zaitzan euskeraz.

Eta euskaldunak akelarretan euskaraz
mintzatzen diran egunotan
inor ez da euskeraz mintzatzen santutegietan,
ez eta euskal fededunen talde aukeratueta.

Baina nik,
euskeraz egin nai dizut
Erri euskaldun aldrebes onen izenean.

Kapilau mojei

Jainkoari
berdin ematen dio
erdarak,
zioen, euskaldunak.
Baina erdaraz
errezatzen zuen berak,
eta erdaraz egitera
beartzen zituen
moja euskaldunak.

Pentsatzen nago pentsatsen
Erri pobre baten
izkuntza pobrea
zein pobrea ote dan
pobreza-botua
egiten dutenek
otoitzerako ere
ez baitute onartzen.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
zuena.

Nik badakit Erri bat
mila apaiz zituena
mila fraide, mila moja.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
zuena.

Nik badakit Erri bat
kristau zena, oso kristau,
oso, oso.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
zuena.

Nik badakit Erri bat
Jainkoa bere izkuntzan
goratu nai zuena.

Nik badakit Erri bat
izkuntza pobre bat
zuena.

Nik badakit Erri bat
bere izkuntza pobrean
Jaungoikoa
goratu ez zuena
mila fraideren kulpaz,
mila mojaren kulpaz,
mila apaizen kulpaz.



Lourdes eta Paulo´ren Urrezko ezteguak

Eta txangolaritasunezko – saria

1963 – 2013

Praga, Budapest ta Biena´tik zear III.



2.013´an Urrilla´ren 16´eko laugarren eguna.

Goizeko 6´1/2etan jagi giñan ogetik, gure garbiansunak egin, 7´retan gosaria artu eta 8´retan zorroak buseko fardelkarian sartuta urten gendun Eslobakiarantza.

Goizeko 10´1/2etan bidean busaren bide-legeak beteteko geratuta, eta ogitartekoak janda bideratu gintzazan Bratislabarantza.

Eta Ungrian sartzera goazan lez, eguneroko ekin tzak aipatu barik, leen Ungria, eta Budapest´aren edesti labur bat aurkeztuko dautzuet.

Ungria.

Europaren ekialdeko erdiaren Errepublika bat da, bere lurraldeko 93.032 Km laukiekin eta 10.624.488 biztanlegaz. Daukan Uri nagusia Budapest da.

Iparraldetik Txekoslovakia, ipar-ekialdetik URSS, ekialde eta ego-ekialdetik Rumania, ego aldetik Yugoslabia, eta sartalde edo mendebal aldetik, Austriagaz mugatuta geratzen da.

Ungriaren edestia.

Erromatarrak menperatu ebazan Danubioaren eskumaldeko lurralde orreik, Panoniako izena ipinita, eta bertan irasiko eben Buda´ren izenagaz beren Uri nagusia.

Gero, Atilaren Unotarrak menperatu ebazan lurralde orreik, baiña ez ziran geratu lurralde orreitan.

K.o.896ko urtean ta Karpatoko mendikateak aldatuta, uralo-altaikako majiar erriko leiñuak Arpad´egaitik bideratuta, Tisza eta Danubio ibaiaren arteko ibarretan kokatu ziran.



Oar-txiki bat emen.

Eta oar txiki onen azalpenean konturatuko gara Europak daroan ekanduagaz, gero iru idaz-lan onen ondorio lez aipatuko dodazan lurralde orrein, erriaren etxe, kale, jauregi ta eleizak, oneik utsik agertu arren danak konpontzen dabizelako.

Eta niretzat edestian egindakoagaz ezeren damu barik, adierazten daben erdi-mendeko Kaizar katolikotasunezko lege sendoaren usai edo zirrarako zentzu estuagaz egiten dabizelako.

Eginkizun orreik, zer ikusi gitxi daukielako, mundu onek bear dauazan bereztasunaren edo askatasunezko demokrazirantz bide barriak zabaltzeagaz.

Edestiaren aria ostera artuta.

Arpad erregea izan zan irasi ebana, lau gizaldi baiño geiago iraun eben arpartar leiñua, bere billoba I Geza izanda Erromako Aita Santuagaz berbetan asi zana, erria Kristautasunezko sinismenean ezartzeko, 1.000garrengo urtean bere seme I Esteban Santuak egin ebena⁽¹⁾.

I Esteban´en ondorengo I Ladislao⁽²⁾ eta II In Koloman´ek⁽³⁾, Kroazia ta Dalmaziako lurraldeak ondoratu ebezan Ungriako erregetzara, eta II In Geza´k, Transilbaniako lurraldeak bereganatu eban, toki orreik erritu edo kolonizatu ondoren.

1.241-1.242 urte artean Tartaroak izan ziran Ungria ondatu ebena.

1.301´eko urtean, III In Andres erregea il zanean amaitu zan Arpadiotarren leiñua, eta Ungriako erriaren jaurkintza naste bateko edo legebageko jarkeran kokatu zan.

Autatuko errege batzuk iraun ondoren, Korbino´tar Matias⁽⁴⁾ izendatu eben errege Ungriako batzarrak, eta Ungriako erregetza bere agintaritzan, Europaren erregetzazko artean leenengoa izan zan.

XVI In gizaldian Ungria otomanoaren menpean geratuta, 1.526ko urte ostetik iru lurraldeetan bananduta geratu zan, Absburgotarrak mendebala, erdiko ibarrak otomanoren eskuetan, eta Transilbaniako lurraldeak, turkoaren menpean egon ziran zaldunezko batzuk bideratuta.

1.683ko urtean eta Bienan egin zan borrokan turkoak menperatu ondoren, Transilabania eta Ungriaren lurralde geienak, Austriari emon eutsiezan, baiña Bienako jaurkintzak Ungriako errigizar-teak atsekabetuta, matxintasun ugari agertu zan.

1.704-1.708 urte bitartean II In Rakoczy´tar Frantzizkok egin eban matxintasuna izan zan aundienetako bat.

Eta 1.848-1.849ko urte artean Kossut´tar Lajos´ena, onek Errepubliko jaurkintza ezarri ondoren, Austriako gudalosteek ezereztu egin ebena.

1.866ko urtean Prusiako gudalosteek, Austriaren gudalozteak menperatu ondoren, Austro-Ungriar bikoteko erregetza aukeratu eben, ta onen jaurkintzagaz onartu ziran Ungriaren jabetasunezko erregetasun ta Biltzarrak.

1.919ko urtean Munduko leen guda-ostean eta Ungriako ondamen ondore, ostera ezarri zan Errepublikako jaurkintza, baiña



(1) 1.083ko urtean guren aitortu, santu edo sanduetsi egin ebena. (2) 1.077-1.095 urte artean bizi zana be santu egin eben. (3) 1.095-1.114 urtetan bizi zana. (4) 1.440-1.490 urte artean bizi zana eta errege lez 1.458-1.490 urtetan.



oraingoan Kun´tar Bela´ren jaurkintzagaz, komunismoaren gizar-tekerizko agintaritzapean. Denbora gitxi iraun ebena.

Frantzisko Jose, I Karlos Ungriako erregearen ordezkoa zan Horthy amiralaren 25 urteko jaurtzangoaren agintaritzazko ekin-tzagaz, berrezkuratu gura ebazan gudan galdutako Ungriaren an-tziñako lurraldeak, eta bigarren munduko gudan Berlin-Romako ardatzagaz alkartu zan.

1944ko urtean Alemaniak, ungriarrak menperatu ebazan.

1945eko urtean Errusiako gudalozteak sartu ziran Ungriako lurraldeetan.

1946ko Otsaillean Errepublikako jaurkintza irasi zan Ungrian.

1947ko urtean eta bakezko elkargoaren bidez, Ungriak ararte beraganatu egin ebazan lurralde guztiak itzuli bear ebazan.

1949ko urtearen Dagonillan Ungriako jaurkintza komunis-moaren kontrolpera jausi zan.

1956ko Urrillaren 23an errigizarteko asarrearen bidez, Buda-pest´en berezko matxintasuna agertu zan, bereala zabaldu zana beste lurraldeetatik.

Nagy´tar Imre⁽¹⁾ agintariak, Barsobiaren elkartekotik urtetea gura ebala argitaratu eban, Ungriaren erdikotasun edo alderdigabeta-suna zaintzeko, eta O.N.U.´ren babesa eskatu ebenean, jaurkintz-orreitan kide euki eban Kadar´tar Janos´ek euki eben jaurkintza-aren aurka, beste jaurbide bat aldarrikatu eban URSS´aren lagun-tza eskatuz, eta komunistaren gudalozteak Ungrian sartuta, egun gitxitan ezereztu ebazan matxintasun orreik.

Komunistak egin eben odoljariozko sarrera orren bidez Buda-pest´en bakarrik, 25.000 ungarier eta 7.000 sobietar il ziran, 200.000 ungarier atzerriratuta.

1958ko urtean Kadar´ek itzi eban Ungriako jaurkintza, Mün-mitx´ek artuta.

1964ko urtean, guda orreitan Erzsébet zubian egin ziran kal-teen konponketak amaitu ziran.

1961eko urtean Kadar´ek, Münmitx kenduta ostera artu eban agintaritza.

1965eko urtean Kallai´tar Gyulla´k artu eban Ungriako agin-taritza.

1967ko Jorraillaren 14an, Losonkzy´tar Paul eta Fok´tar Jenoe artu eben Ungriako jaurkintza.

Eta 1.969ko Urtarrilla´ren 27an, izenpetu zan Erromako eleiza-gaz ebazpen edo elkargo bat, Ungriaren eleiz nagusitza bere se-nean ezartzeko.

1970ko urtearen asieran, lurpeko tximist-gurdiaren edo biga-rren Metroko ibilbidea zabaldu zan.

(1) Nagy´tar Imre = 1.898-1.958 urtetan bizi zan gizon au, Ungriaren komunista alderdikoa zan.

1971ko Iraillan Mindszenty⁽²⁾ kardinala Erromara joaten da eta Biena´ra itzuli ondore, bertan ilgo zan 1975ko Loraillaren illean.

1.975ko Loraillaren ille orreitan izten dau Fok´ek jaurkintza, Lazar´tar György agintaritzaz orreitaraz igonda, baiña nai ta Kardar´tar Janos´ek agintaritz orreitan egon ez arren, komunista-ren alderdiko lendakariak agintzen eban Ungriako jaurkintzan, eta jaurkintzape orregaz lortu eban Ungriak euki zituzen beste agintaritzazko talde guztiak baiño geiago Europaren ekialde orreitan.

1.960-1.980ko urte bitartean, Ungria eta txantxa edo iseka lez “Ekialdearen Alkarteko Zorioneko txabola”⁽³⁾ lez aipatzen eban

1.982ko urtean, lurpeko tximist-gurdiaren irugarengo ibilbidea zabaldu zan.

1.987ko urtean UNESKO´k, Buda´ren jauregia ta Danubio-ko ibaiaren bazterrak, Munduko Ondarearen zerrendan sartu ebazan.

Ungria gaur, ONU, KOMEKON eta Barsobiaren Alkarteko kidea da.



Budapest´ekiko edesti labur bat.

Ungria´ren Uri nagusia izanda, Danubio´aren Pitxi edo Erregiña´ren izenagaz ezagutzen dabe askok.

Ungriaren Uri nagusi ta bere Pest´eko konderri banatuarena be bai.

Bere lurraldeak 525 km laukiak daukaz eta 1.980ko urtean 2.063.306 biztanle euki zituzenetik gaur, 1.700.000 daukaz, eta 2.380.000 Uritasunaren nagusitasunezko ingurua.

1.873ko Azaroaren 17an irasi zan Uri bat lez, Danubio ibaiaren bazterreko mendebalean Buda ta Obudako auzo edo erriak, ibaiaren ekialdeko Pest´eko aldeagaz batu ziranean, eta alkartasun orretatik agertu jakon gaur daukan Budapest´eko izena

Budapest´eko edestia Akinkun, keltiar ezarpenagaz asten da, gero erromatarren bealdeko Panoniaren uri nagusi lez geratu zana, eta edesti arloetan Ungriaren edestia da.

Europaren Uriarteko politenetakua izanda, leku batzuk daukaz Muduaren Ondare direnak, Danubio ibaiaren baztarrean Buda gaztelua, Andrassy etorbidea, Gizauren⁽⁴⁾ Enparantza, eta munduan bigarreneko sarrena dan Milla-urteko Erri-Buru edo Uri-Nagusia.



(2) Mindszenty´tar Jozsef = 1.892-1.975 urte artean bizi zana. (3) Ekialdearen-Alkarteko “Zorioneko-Txabola” = “La barraca-Feliz” en el Bloque del Este. (4) Hèroe, varon ilustrre, noble, hidalgo.



XVn gizaldiko denboratan, Budapest´ek eukan Korbinnianako liburutegia, Europan egon ziran liburutegitik garrantzi aundikoena izan zan, eta bigarrena aunditasunean Batikanoko liburutegiaren atzetik.

Eta Budapest´ek euki eben aberastasunagaitik, juduaren Mekako izenagaz be ezagutu zan.

118 lur beroaren iturriak daukaz, ura 21´etik-78ko bero-mailan botaten dabezanak eta lurpekotasunean iñor baiño geiagoko urberoaren leize-zuloak, munduan dagoen bigarren batzar toki aundiena, eta aundikotasunezko maillan irugarren Lege etxea.

Europako Uri-Politasunean eta Bizigarrienerariko zazpigarren lekuan kokatuta dagoelako, Urtero lau-milloterdi txangolari joaten dira bera ikustera.



Txangolaritzaren aria ostera artuta:

Bazkaldu egin gendun Bratislabara arratsaldeko 1´1/2etan eldu gintzazanean, eta 3´1/2etan ostera busera igon Budapest´era joateko.

Arratsaldeko 7´retan eldu giñan Budapesteko BUD ostatu edo arrotzetxera eta zortziretan afaltzera beratu gintzazan.

Maikide talde alai ta ederra osatu gendun Madril´tar Esteban eta Maria Antonia, Domingo ta Mari Jose, eta Aragoi´tar Pako ta Maria senar-emazteakaz, nai Maria Extremadurakoa izan.



Politikako itaunak be agertu ziran eta batez be Euskalerrriarena, baiña denbora gitxian arduratu ginduzan arlo orretan, nire erantzun baten: “norberak baiño, iñork ez dabela garbitu ta zuzentzen norberen ardurazko etxea” esan neutsoenean, seirak ondo baiño obeto aitu ebelako zer esaten neban berba aiekaz. Denbora geiena, ikusi genduzan edertasunakaz arduratuta. Eta 10´etan igon gintzazan bakotzaren gelatara.

2.013´an Urrilla´ren 17´ko bost-garren eguna.

7´retan jagi, 7´1/2etan berauskarri edo gosaria artu eta 8´retan erriko txangolaritza egitera urten gendun.

Erri aurkezpenean azaldu dodan lez, gauza eder asko daukaz erri onek, gaiñera goitik bera edertuten dagoena, txangolariai atara egiten dautsoen dirua, zuribide edo garbitasun apur bat gitxienez euki dagian, eta orretan naita kaizar katoliko sendoren usaia euki, ekanduzko neurri onenean ordezkutzen dabez, euren errikoari ta txangolaritzarako agetzen dabezan gauza guztiak.



Iñundik begituta be, edo ta iñungo berdinketarik ez dauka espainitarren “aberri katolikotasunagaz”⁽¹⁾, laterri onek daukan ainbeste lotsabagetasunezko lapurketarik ez dalako ikusten, naita merkantil eta katolikotasunezko batzango edo ta menperatzailetasunezko asmo bardiñagaz ibili arren.

12´etan itsas-ontzi batera igon gendun Danubio ibaitik ibili ondore erria ikusteko, eta benetan esaten dautsuet ondo asmatuta dagozela bidai orreik.

1´etan beste itsas-ontzi batera aldatu giñan eta bertan bazkaldu gendun, oraingoan edertasunezko giro on baten.

14´1/2etan Budapestek daukan garrantzienetariko I San Esteban´en eleiz-nagusia eta bertan 1.000 urte baiño geiago daukan koroi santuagaz, Santa Maria eleiza San Esteban leen martiriaren etxandre dana, legebiltzarraren, eres antzerkiko, eta Greshan jauregi ta etxe ederrak.

6´1/2etan aske itzi euskuen eta, Esteban ta bere emazte Maria Antonia, Domingo ta bere emazte Mari Jose, Pako ta bere emazte Maria eta Lourdes ta nik, York-Berriko⁽²⁾ kafetegi ospatsuan kafea artu bear dogula ta joan gintzazan.

Erritik ibilten bata bestiari itanduten goazela, zortziretan eldu giñan kafetegi ospatsu orreitara, eta zortzientzat lekurik ez zalako egon, kafe gozo ori artu barik urten gendun.

Afaltzera joatea erabagi gendun, eta zabalik aurkitu gendun ogitartekoak edo anburgeseri batera joan giñan.

Ainbat barre egin gendun Pako´ren kontura, alkoola ez eban saltzen taberna aretan berak edateko eten barik garagardoa eskatzen ebalako, arik eta betaurrekodun neskatil gazte bat gatz aundiz, ezetza emonarte.

Lurpeko tximist-gurdira joan giñan etxera edo arroztetxera joateko, eta jende-artean ainbeste beartasunezkoak ikusis geltokietatik ibilita, azken baten baten batek esan arte, zorigabeko buru erailtza bategaitik geratuta egon zirala lurpeko tximist gurdi orreik.

Eta gaueko 12´1/2ak ziranean berebil taxis bat artuta, Budapesteko Buda arroztetxe areitan azkeneko gau aldiko lo egi-tera joan gintzazan.



Atutxa´tar Paul
Zornotza´n 2.014´an Urtarrilla´ren 7´an

(1) *Espainitar Aberri-katolikotasunagaz* = *nacional-katolicismo-español*. (2) *York-Berriko* = *Nuena-York*.

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XIII.



7. Erdi Mendean, Eleiza Katolikoaren nausitasuna.

Europar, erromatarren menderatzeak amaitu zira-nean, eta Aita Santuak bere sasi-jainkotasunezko aldizkoan⁽¹⁾, Nizeatik ekarri eben uts ezintasune⁽²⁾ gogoeta⁽³⁾ siniskai bidetik, Eleiza katolikua agertu zan errigizarteak alkarganatzako, eta jakintzan jendekuntzatzeko kaizartza guztien gaiñetik, bera ezarri zalako aolkularitzaren agintaritzan, eta bereala bete ziran Europako lurralde guztiak, basiliza, eliza ta Gotzai Elizarekin⁽⁴⁾.

Gero erlijioa irakatsiz, Europako lurralde zabala latiniaren izkuntzazko jendekuntzan ezarri gura ebana, eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irakiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo

igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun jardueran⁽⁵⁾ egin ziran gurutz gudaldiak ta eleiz epaiketan⁽⁶⁾ banatzen ebazan zigorrak ikusi baiño.

Frantziako lurraldean Klodobeok⁽⁷⁾ Merobinjio leiñua sortu ebenetik ta Kristautasuna besarkatu ondoren, euren etxezain ta gero errege izango zan Marteltar Karlosek⁽⁸⁾, 732an Mauritarak Tours ta Poitiersen geratu ebazan, ekintza orregaz Europako Katolikotasuna galbidetik gorde egin ebana.

Bere seme Pipino, edestirako laburra izendatuta geratuko zana eta Karlo Magnoren aita, 751n Karolinjioaren leiñua sortu ondoren, III In Leon Aita Santuak Karlo Magnori Gabon egunerako Erromako San Pedro eleizara deituta, Mendebaleko Erromatar Kaizar Sakratuaren Augusto Kaizar jauna koroatu eban 800n urtean.

(1) Aldizko = capricho, terquedad, obstinaciòn. (2) Uts-ezintasunezko = infalibilidad, o el don de nopoder equivocarse. (3) Gogoeta = pensamiento, idea, concepto. (4) Gotai-eleiza = catedral. (5) Jarduera = proceder, comportamiento. (6) Eleiz epaiketan = autos de fe. (7) Klodoveo, frankoaren erregea = 466-551. (8) Karlos Martel, lenengo erregearen etxe-zain eta gero frankoen errege = 689-741.



Ortik asiera emonda ostera be, zoritzarreko erro-
matar menpekotasunaren asmakuntza orreri.

962an XII In Juan Aita Santuak Alemaniako I Oton
aundia⁽¹⁾, Europaren erdiko aldea, Italiako iru za-
titik bi ta Frantziaren Ekialdeko Erromatar Kaizar
Sakratua izendatu ondoren, 963an euren arteko
gora beragaitik ez ziralako konpontzen, Otonek
XII In Juan kendu eben beren jauralkitik eta VIII
Leon ezarri eban.

Txekoslobakiaren errege I Boleslaok⁽²⁾ onartu egin
bear izan eban Erromatar Kaizar Sakratuaren na-
gusitasunezko menpetasuna eta abar.

Gero I Maximiliano⁽³⁾, espainiako I Karlos´en ai-
tite eta II In Maximiliano⁽⁴⁾, espainiako I Karlos´en
anaia Alemaniako I Fernandoren⁽⁵⁾ semea zana be,
Erromako Kaizar Sakratuak koroatuak izan ziran.

Kontuan artu bear dira, 1.516an I Karlos espai-
niako errege izendatu eta 1.519an Alemaniako
kaizar V Karlosen izenarekin egin ebenean, Fran-
tziako I Franzizkoren aurka euki ebazan Europa-

ren lau guda nagusiak, Aita Santuak euren buru
gaiñetan dindilizka euki eben Erromatar kaizar
Sakratuzko domiña aundi ori nork eroan dagian
Europaren Mendebal onetan: 1^a=1.521-1.526.⁽⁶⁾;
2^a=1.526-1.529 eta urte onen bitartean I Karlo-
sek, VII Klemente Aita Santua I Frantzizkorekin
kidetuta egon zalako, Erromari erasotu ta saskildu
ondoren, I Karlos Aita Santuaren atzetik arrapa-
ka ibilita, onek Sant Angeloko gazteluan ostondu
bear izan eban, eta 1.530ean VII In Klemente Aita
Santuak espainiako I Karlos ta Alemaniako Vna,
Erromako kaizar sakratua izendatu ebal.

3^a = 1.535-1.538 eta 4^a = 1.542-1.544 Nizako bake
une edo gudu arte, eta Krespiren bakean amaitu zi-
ranak, eta abar.

Bai eta kontu aundiagoan, Errusiaren askeneko
mugatik Atlant Itsasoraiño, eta Noruegatik Afri-
karaiño⁽⁷⁾, nai ta batzuk beranduago egin arren
Kristiñaukide izan da, 325ean katolikotasunaren
indarrezko alderdikeria sortu zanetik, 622an le-

(1)Alemania´ko Oton aundia = 912-973. (2)Txekoslobakiako errege I Boleslao = 935-976. (3) I Maximiliano = 1.459-1519. (4) II In Maximiliano 1.527-1.576. (5)Alemaniako errege I Fernando eta espainiako I karlos´en anaia 1.503-1.564. (6)1.525an Pabiako borrokan, Urbietatar Juan bizkaitar gudariak I Franzizko arrapatu eban, eta I Karlosek atxilotu. (7) Bera kontuan artuta.

nengo banaketa andia Islam sortutakoan euki eba-
la, eta Europaren errigizarte asko beartuta, Kristau
egin zirala.

Gaiñera, ez zala Jaungoikoaren agindua, Bere Le-
gezko bereztasunetik sortu ziran: “gizaren leiñu
edo erri ta errigizartearen izkuntzazko nortasunak
suntsitzea”.

Gure arbasoak, Bera ta Bere Lege baldintzaren
aurrean bereztasundutako erritartze oneri, ondo
baiño obeto banakatuta adierazi ebelako bizitz au.

JAINKOAK, osagarritasunezko batzagotasunaren
elburua be ipini euskun, baiña ez mendeko ekin-
tzaren bide.

Gure arimak, arrazoizko baitaren ulermenean era-
gille eginda, gai eta gizaren eskubideak ordeztu
arduran zaintzera beartuta dagoz, arrazoiaren uler-
menetik, nortasunezko ulermenera eldu gindezan

Sargonen ondorengotik asi, eta Erromatar Kaizar
Sakratu asmakizunaren atzean ibili ziranak, ondo
baiño obeto jakin eben, ez zirala Jaungoikoaren
gauzak, sasi agintaritzarenak baizik. Jesusek, beste
gauza batzuk esan euskuzalako.

Eta ikusi dogun lez, erregeen artean be, ondo baiño
obeto jakin ebala, erabilten ebazan legezko eritziak

norkeriaren gauzak zirala, sasi garaipenaren atzean
ibilita Aita Santuen uts ezintasunezko legeak be,
agintaritzaren garrantziko gauza orreik euren ar-
tean ondo lotuta eukitearren, irabazgoi naierara
ibilita, ez ebalako kontuan artzen.

Begitu bestela erlijiozko sinismenean euki eben uler-
mena Frantziako erregetza gure Nafartar III In Enrri-
keren eskuetara aukeratu zanean esan ebenagaz.

Kontuan euki, Nafarroako erregetza, 1.527an II En-
rike Frantziko I Franzizko erregearen arreba An-
gulemako Margaritagaz⁽¹⁾ ezkondu baiño ariñago-
tik, erlijio katolikoaren aurka, Kristau ukalarien⁽²⁾
erlijioak zirela. 1.560an Nafarroako III Juana
erregeñak onartu eta 1.567an legeztu ebenetik.

1.593an, Nafarroako III Enrikeri Frantziako erre-
ge izateko aukera ori, baldintza onegaz agertu ja-
kon: Kalbinoren ukalaritzatik⁽³⁾ alde edo ukatu
egiela eta katolikotasuna besarkatu.

Bere erantzuna: “Parisek, Meza bat merezi ebala
esan ondoren”⁽⁴⁾, 1.594an Otsaillaren 27an Fran-
tziako errege koroatu eben, IV In Enrike izenagaz.

Orduko Munduan eta Europako errigizarteak ba-
tez be, batzangotasunaren asmakizun ori kontrola-
tzeko, ez eben gogorkeri orren griñapean⁽⁵⁾ bakarrik



(1) Angulemako Margarita, Frantziako I Frantzizkoren arreba zanak, berak ez eutsen katolikotasunari ukorik egin, eta II Enrike bere zenarra iltzetik askatu eban. (2) Protestante. (3) Ukalaritzatik = protestantismo. (4) Nai ta berak erantzun ori, emon ez. (5) Griñapean = preocupaciòn, desasosiego. s.



bizi bear izan, aitor seme andiki edo galdukerizko feudoaren legepeko⁽¹⁾ premiñaz⁽²⁾ gain, uzurri edo elderri⁽³⁾ ugari artean bizi bear izan ebalako.

Negargarrizko ikustea da, zelan katolikoak nor-kerizko batzangotasunaren asmakuntz ori aurrera erodateko, kaizar domiña aundi ori errege guztien buru gaiñean dindilizka ipinita indartsuenak artu egian, Europan Kristiñau erlijioa eskuetan panpa bitxi⁽⁴⁾ edo panpa⁽⁵⁾ bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraskiak.

Pozgarritasunezko egia da baiña, jakintza len lekaide-txetan babestu egin zana ta gero Bolonia, Padua, Paris eta abarreko Ikastetxe Nagusietan, eskolastikazko eraman onaren⁽⁶⁾ zentzua sendotzen joan zala.

Eta geien, Akinotar Tomas Santuak⁽⁷⁾, Kristautasunezko zentzua, Aristotelesen eraman onaren irizpideko⁽⁸⁾ bereketagaz⁽⁹⁾, maixutasun aundiz bat egin ebana.

Nai ta berak, bere azkeneko denboratan zalantza asko euki, bere idazkietan zeruko izkutasu nari ez ebalako jakin, bear eban lez, egokitasunik emon.

Tomas Santuak, orduko eraman onaren⁽¹⁰⁾ zirraborro orren barruari, argitasun aundiak emon eutsa zelako.

4. ZATIA.

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, errege jaun sorkuntzaren sarrera.
 - 1.1. Euskalerrian Jaun-erregearen sorkuntza.
 - 1.2. Gure Nafar erregetza.
 - 1.3 Bizkaiko jauntza.
2. 1.540 1.550en Erdi Mendeko urtetik Oraingo Aldira, edo ta Berrizte Alditik⁽¹¹⁾ Frantzian 1.789an egin zan iraulketatik gaur arte.
3. EUSKEREAK Euskalerrinari, zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.
4. Euskalerriko semearen egin bearra
 1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, jaun eta erregetzaren, sarrera.

(1) Galdukerizko feudolegepean = corrupto, feudalismo valvasor.. (2) Premiñan = indigencia, pobreza. (3) Izurri edo elderri = epidemi-as, o, peste (4) Panpa bitxi=marioneta, titere. (5) Panpa=muñeco. (6) Esko-lastikazko eraman ona=filosofia escolastica, escolasticismo. (7) Akinotar Tomas Santua = 1.225ean Italiako Rökkasekan, Kanpaniako Akinoren aldamenen dagoena jaio, eta 1.274an, Fossanobako zizter lekaidetxean il. (8) "Irizpide" = Critica de la filosofia del aristotelismo. (9) "Bereketa" = Asimilación. (10) Eraman oneko = filosofia. (11) Berrizte alditik = desde la reforma.

Sarrera.

Oraiñarteko edestilari geienak irabazgoi edo ta bil-durraren eragipenez, norkeriz dabizen agintariak gura⁽¹⁾ daben argitan ezarri egiezen errigizartearen etorkizunezko edestiak, Europa eta Euskalerriko arbasoen ulermenak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: “beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasunezko asmakizun mende orregaz zikinduta”, berezko errigiarteak ezerezko kontuan euki barik, eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi garaipenaren egarrietan iraun dagien.

Espainolak adibidez, beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza⁽²⁾ betikoak edo ta danok espainiolak izan bagiñan balitz bezala.


Egia, baiña, urrun dago ortik.

Orregaitik, Euskalerriko edestia ta Euskal izkuntzari buruz, berezko nortasunaren zentzu aunditik urrunduta, egiten dabezan adierazpenak eta bai euren menpekotasunezko irakasketetan guzur aundi ta utzikeriz⁽³⁾ betean: euskaldunak, mendekotasunean⁽⁴⁾ bizi izan garela beti, esaten dabe.

Zelan ulertu leike ori, gure Euskerearen nortasun demokrazizko askatasunean bizi bizi gagozanean, eta eurak nortzuk diran jakin gabe ?.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15'ean



(1)Edo beartuta.(2) Izkuntz ori Espainol ez dana, Gaztelera-ko latin kumea baiño. Eta, zer da espaina ?. (3)Utzikeriz =lleno de omisiones

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Epaillaren 27an egunean
EUSKERAZALEAK
alkarteak urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 19:00etan eta
Bigarren deia 19:30etan

GAIAK

Aurkezpena: Zuzendariak
Urteko kontuak: Diruzaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, balegoz
Errengoak eta eskariak

ZUZENDARIAK

Asamblea General Anual

El 27 de Marzo celebrará
la Asociación
EUSKERAZALEAK
su Asamblea General anual
Primera convocatoria 19:00 tarde
Segunda convocatoria 19:30 tarde

ORDEN DEL DÍA

Presentación: El Presidente
Cuentas anuales: La Tesorera
Actividades anuales: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si los hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

**Aita San Antonio
Urkiolakoa, (Bis)
askoren biotzeko
santu debotua, ai, ai, ai!
Askoren biotzeko
santu debotua.**

**Askok egiten dio
San Antoniori, (Bis)
egun batean joan ta bes-
tean etorri, ai, ai, ai,
Egun batean joan ta
bestean etorri.**

Arteagako Gaztelua